



#### 4 KATALUNIA Hauteskundeak baino lehenagoko analisiak

Etzi egingo diren Kataluniako hauteskundeek hautsak harrotu dituzte azken hilabeteetan. Batzuek hauteskunde arruntak direla diote; beste batzuen iritziz berriz, plebiszitarioak. Herrian bizi diren bi katalanekin eta Katalunian bizi diren hiru lasarteoriatarrekin luze eta zabal hitz egin du TXINTXARRIK, hauteskunde horien inguruko hainbat gai nola ikusten dituzten jakiteko.

#### 5 BERTSOLARITZA Bigarren izan zen Ane Labaka Beasaingo saioan

Joan den igandean hasi ziren Gipuzkoako Bertsolari txapelketako final zortzirenak. Sei bertsolari aritu ziren Beasaingo Usurbe antzokian, Ane Labaka herritarra tartean. Saio txukuna burutu zuen eta bigarren postua eskuratu, 444 punturekin. Jon Maiak irabazi zuen saioa. Hurrengo biak bihar eta etzi izango dira; igandekoa Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean, 17:30ean. Biharkoa berriz Azpeitian izango da.



Aspertzeko aitzakiarik ez dute izango lasarteoriatarrek urritik aurrera, hainbat ikastaro prestatu baititu Udalak gazte zein helduentzat: modelaketa eskaiolarekin, gitarra jotzeko kurtsoa, skate taula konpontzekoa, barreterapia, oroimen tailerra, eta abar. Izena emateko epea irailaren 28an irekiko du Udalak; urriaren 7ra arte matrikulatu ahalko dira ikastaroetan parte hartzeko asmoa dutenak. Urria erdialdean hasiko dira kurtsoak, bi egoitza horietan.

Skate taulen konponketa, gitarra jotzeko ikastaroa, globoflexia, modelaketa eskaiolarekin, GPS-aren erabilerari buruzko tailerra eta bi dantza mota jorratzen dituzten ikastaroak: 'Shuffle' eta 'Bollywood' izenekoak. Udalak 12 eta 30 urte bitarteko herritarrei eskainiko dizkien ikastaroak dira. Gaztelekuan izango dira saioak.

Gaztelekuan bertan egin zuten aurkezpena, asteazken eguerdian. Bertan izan ziren Jesus Zaballos alkatea, Kultur zinegotzi den Maite Iglesias, Txus Alonso Gazteria eta Festak saileko arduraduna eta Xabier Goitia kultur teknikaria.

Agerraldi horretan azaldu zuten ez zituztela halamoduz aukeratu lehen paragrafoan zerrendatutako ikastaro eta tailer horiek: "Herriko instituetara joan gara eta bertako ikasleei galderak egin dizkiegu, gustuko jarduerak zein-



Herritarrek ekintzetan parte hartzera animatu zituzten udal ordezkariak.

tzuk diren jakiteko eta gure eskaintza emandako erantzunetara ahalik eta gehien doitzeko", adierazi zuen Txus Alonso zinegotziak.

Ikastaro horietara apuntatu nahi duten gazteek datorren astelehena iritsi arte itxaron beharko dute, orduan irekiko baita izen-emate epea. Urriaren 7ra bitartean egongo da irekita. Gaztelekura bertara joan beharko dute. Lasarte-Orian errolatuta daudenek 8,10 euro ordaindu beharko dituzte eta 16,10 errolatuta ez daudenek.

#### Helduentzako ikastaroak

Gazteentzat bakarrik ez, helduentzako beste zenbait jarduera ere prestatu ditu udalak udazkenerako. Kultur etxean izango dira saioak. Oroimen tailerra, Literatur tailerra eta Barreterapia eskainiko dituzte, aurreko urteetan ere horiek izan zirelako "arrakastatsue-

nak", Maite Iglesias Kultur saileko buruak esan zuenez.

Izena emateko epea Gaztelekuko ikastaroen egun berdinean hasiko da, irailaren 28an hain zuzen, eta urriaren 7an itxiko da. Hori bai, interesa dutenek Manuel Lekuona kultur etxean bete beharko dituzte orriak. Prezioen berri ere eman zuten ostiraleko agerraldian: Herriaren errolatutako biztanleek 27,90 euro ordaindu beharko dituzte, eta 49 errolatuta ez daudenek.

#### Hasiera-datak

Urria erdialdean dira haste-koak Gaztelekuko eta kultur etxeko ikastaroak; Gabonen aurretik bukatuko dira.

Skate taulak konpontzeko eta gitarrarena urriaren 14an hasiko dira eta abenduaren 16an bukatu; globoflexia eta eskaiolarena 15ean, abenduaren 17ra arte. GPS-aren erabilerarena eta 'Shuffle' dantza

ikastaroen aurreneko saioak urriaren 16an izango dira eta abenduaren 18an azkenak. 'Bollywood' dantzarena izango da hasten azkena, urriaren 19an. Handik bi hilabetera amaituko da.

Helduen ikastaroerik dago kienean, urriaren 16an hasiko dira Barreterapia eta Literatur tailerra eta 19an Oroimenarena. Abenduaren 18an eta 14an amaituko dira, hurrenez hurren.

#### "Gertuko zerbitzua"

Jesus Zaballos alkateak asteazkenean aipatu zuen "herritarren nahien araberako eskaintza" prestatzen saiatu direla, zerbitzu "ahalik eta gertukoena" emate aldera. "Udalak aisialdia ere hartu behar du kontutan, ez oinarritzko beharrak asetzeraz mugatu", esan zuen. Era berean, ikastaroek harrera ona izatea espero duela adierazi zuen.

**UDAZKENA 2015**  
**URRIAREN 1-ETIK AURRERA**

**PLAN RENOVE**

**Bideo Lagunak**

Etxekotesna elektrikoetan adituak

**12 ORDAINDU**  
HILABETETAN INTERESIK GABE

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com



Neure kabuz



Mailu Arruti

Pertsonak eta PERTSONAK

Uda honetan ez Santiago bideak ez Inazio bideak ez gaitu harritu. Hegotik iparrera datorren bidea beteriko erromesaldiak asaldatu gaitu. Eta bere erabilera mediatikoak. Errefuxiatu kopurua nola banatu behar duen Europa hipokrita honek.

Burges koxkorrok bonbak saldu behar ditugu tokatzen den hegoaldeko interesa daukan edozein herrialdetan. Baina kontuz! Bonbaketak edo hobeki esan, bere albo kalteak kontrolatuak izan behar du, ezen integristez beteko zaigu gure "etxe poxpolatza"!!!

Aylan Kurdi 3 urteko haurra bai, ito egin zen. Baita bere 5 urteko Ghalib anaia eta Rehan bera ama ere. Eta beraiek bezala zenbat eta zenbat?

Zurikeri, nazkagarritz ikur bihurtu eta lehengoan segi. Zer animalia klase da ordea gizakia?

Probatu ez duenak ez daki.

Memoria kontuekin sentsibilitate pixka bat daukagunok beti diogu, ikertu, errekonozimendua lortu, gertatutakoa transmititu eta erreparazioa bilatzeko lan egingo dugula. Nagusiki horrelakorik berriro gerta ez dadin.

Ez dira urte asko oraindik euskaldunei, eta Espainiako beste herriei antzeko zerbait gertatu zitzaigula. Errefuxiatuak izan ginen eta beraien etxe eta instituzioetan onartu gintuenik ere izan zen.

Beti bezala, gizakiak hautsi, eta gizakiak konpondu. Ba dira estatu boteretsu ankerrak ("pertsonek" gidatuak) eta badira PERTSONAK baliabide eskasekin bestek txikitutakoak konpontzen saiatzen direnak.

Bejondaiela azken hauei!

Zorion agurrak



Eneko

Zorionak Eneko zure zazpigarren urtebetetzeari! 7 muxu pottolo Ane, aita eta amaren partetik.



Gabriela

Zorionak!!! Saiatu beste urte bete harraipatzen osasunarekin!! Muxu handi bat




Gaizka

Zorionak korrikalari! Besarkada handi bat koadrilako lagunentzako! Larunbateko erronda zure kontu!



Malen

ZORIONAK PRIN-TZEXITA!!! Mila zorion maite zaitugun guztion partez. Ondo pasa!!!



Joshe

Gure lagun maitia eta jatorrarentzat zorionik beroenak!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- 37m2ko lokala alokatzen dut Basaundin. garaje edo biltegi bezala erabili daiteke eta txokoa ere badu. 943 360 042
- Alokairuan etxea hartuko nuke herrian, bi logela eta 500 euro inguruan. 673 381 470

Lan-eskaintza

- Pertsona bat behar da gizon heldu bati laguntzeko eta etxeko lanak egiteko. Astelehenerik larunbatera, lau ordu egunean. Kontratoarekin. Tel.: 615 734 794
- Sukaldaria jornada osora eta asteburuetarako zerbitzaria behar dira Lasarte-Oriako taberna batean. Tel.: 618 639 054

Lan-eskaria

- Neska gazte euskaldun bat haurrak zaintzeko prest eskaintzen da. Tel. 616 932 038 (Eneritz)
- Gizona eskaintzen da eskutitzak edo publizitate banatzeko. 943 364 527

- Etxeko lanak egin eta pertsona adinduak edo haurrak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Interna, externa edo orduka. 676 188 411
- Emakume arduratsu eta euskaldunak umeak edo adineko pertsonak zaintzen lan egingo luke. Esperientziarekin 2 arloetan. Tel.: 666 382 688 Arantxa

Bestelakoak

- Laguntza klaseak ematen dira Lehen Hezkuntza eta DBH. Talde txikiak, esperientzia handia, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakiak, 943 376 888 / 646 645 445 (Maria).
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068
- California furgonetaren abantzia salgai. 686 245 146

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Eneko Izquierdo Roman, irailaren 20an.
- Nahia Nieto Osa, irailaren 16an.
- Mattin Esnal Larriba, irailaren 13an.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 25	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 26	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 27	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 28	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 29	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 30	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 01	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Ostirala, 02	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 03	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 04	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 05	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 06	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 07	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 08	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elosegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal eskualtegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.  
txintxarri@txintxarri.info  
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## ATSOBAKAR

# Erabakia "aurretik hartuta" zegoela salatu du EH Bilduk

## Urtean 900.000 eurotako gastua ekarriko du



EH Bilduko zinegotziak atzo arratsaldean eskainitako prentsaurrekoan.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du bere gain hartuko Atsobakar zaharren egoitzaren kudeaketa. EH-Bildu koalizio abertzalearen aburuz, "ondorioak" ekarriko dizkio horrek Lasarte-Oriako Udalari: "EAJk eta PSE-EEk paktatu egin dute Aldundiak Atsobakar bere gain ez hartzea; urtean ia 900.000 euro galduko ditu horregatik udalak, auskalo noiz arte".**

## TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak irailaren 17an iragarri zuten azken horrek ez zuela hartuko bere gain Atsobakar zaharren egoitzaren kudeaketa, hiru aldeetako ordezkariak egun horretan egindako bileraren ostean.

"Antzerki hutsa" izan zen bilera hori EH-Bilduren iritziz, erabakia "aurretik hartuta" zeukatelako EAJ eta PSE-EE

alderdiek. "EAJ eta PSEk guraizeak zorrotzuta, inbertsio sozialaren murrizketari ekin diote", salatu du.

Iragarpen horrek eragina izango du udalaren kontuetan, koalizioak nabarmendu duenez "legez Udalak egin behar ez zuen gastu bati egin behar dio aurre, auskalo noiz arte". Urtean 900.000 euro.

### Hitzarmena, "bideratuta"

Koalizio abertzalea egon zen udal gobernuan joan den

legealdian. Orduan Aldundiarekin hitzarmena negoziatu zuela aipatu zuten: "Ados geunden bi aldeak, udalbatzarrean ere onartu zen, baina Aldundiaren aurrekontuak atzera bota zituen oposizioak eta partida ekonomikorik ez zegoen hori gauzatzeko".

2015eko apirilean partida gehigarri bat onartu zuen Aldundiak hitzarmena gauzatzeko. "Sinadura eta argazkia besterik ez ziren falta, baina horretarako gauza ere ez dira izan EAJ eta PSE-EE", adierazi du koalizioak.

Udalak epaitegietara joko zuela esan zuen Jesus Zaballo alkateak iragan astean; EH-Bildu ez dago konforme erabakiarekin: "Orain behar duguna ez da epaiketara joan, ongizatearen aldeko jarrera politikoak baizik".

## Euskaltegiko ikasturte hasiera bikaina

Udal euskaltegiko ikasturte hasieraren berri eman zuten Jon Antxordokik Euskara Batzordeko lehendakariak eta Pili Galanek, euskaltegiko zuzendariak astelehenean.

Agerraldian azaldu zuten, 123 ikasle eman dute izena aurten euskaltegian. Iaz bezala, 12 talde osatu dira eta hauetan 105 ikasle egongo dira ikasturtean zehar euskara ikasten.

Hauetaz gain, 17 lagunek autoikaskuntza ikastaroa egingo dute. Ikastaro hau euskategira joan gabe gauzatu daiteke. "Herriaren interesa piztu du, nahiz eta emaitza onak lortzeko autodisiplina handia eskatzen duen," azpimarratu zuen



euskaltegiko zuzendariak.

Jon Antxordoki zinegotziak adierazi zuenez, iazko zenbakiak hobetu dira eta helduen euskalduntzeari bultzada berri bat eman zaio herrian. Horregatik, "oso gustura gaude ikasturtea horrela hasi izanarekin" adierazi zuen.

Taldeak lanean hasi badira ere, interesa duen edonoren erantsi daiteke taldeetan.

Maila guztietako taldeak daude. Esate baterako, EGA prestatzeko mailaren inguruan dauden ikastaro gehiago daudela azpimarratu zuten. Eta aukerarik balego, autoikaskuntza sisteman ikasteko eskaera egin daiteke.

Hau guztiaz gain, Euskara Zerbitzuaren Ondo ibili beka-sistemari esker, %85a arteko dirulaguntza eskuratu dezaketela ere gogoratu zuten.

## IKASTAROA

### Plaza dantza ikastaroko bilera

Ttaku KE-k antolatzen duen Plaza Dantza ikastaroko urriaren 6an izango da lehen saioa.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, hasiera batean iazko ikasturteko ordutegi nahiz egun berdinetan jarraitzeko asmoa dago, "beste iradokizun berezirik ez badago gutxienez".

Saioak astearte eta asteazkenetan 20:00etatik 21:30era Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko soinketa aretoan izango dira. Asteartean maila aurreratua eskainiko da eta asteazkenean, berriz, hastapeneko taldea izango da.

Ikasturtearen nondik norakoak zehazteko asmoz, parte hartu nahi dutenei zuzendutako bilera deialdia egin dute antolatzaileek. Hau irailaren 29an, asteartea, Sasoeta-Zumaburuko ikastetxeko soinketa aretoan egingo da 20:00etan.

Dantzaz gozatu eta euskaraz ondo pasa nahi duten guztiei, ikastaroan parte hartzeko gonbitea egiten du Ttakunek.

## PAILAZOAK

### Erreportaje emanaldi berezia

'Txo, MikMak Txikia' ikuskizunaren DVDaren argitalpena dela eta, erreportaje proiektio eta mahai-ingurua antolatu dute pailazoen gaur arratsaldean 19:00etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxean.

Lehenik, itsasoaren osasunari buruzko 'Zuhaitzetan itsasora goaz' eta Lasarte-Oriako Jalgune elkarteari buruzko erreportajeak eskainiko dira areto nagusian. Jon Maia bertsolaria eta Albalako kidea eta Jalgune kideak izango dira bertan gauzak azaldu eta festa giroa ezartzeko.

Ostean, 20:00ak aldera, kafetegian hausnarketako tarte izango da. Proiektioa abiapuntu hartuta bi proiektuei buruz solasaldia egingo baita.

Emanaldirako sarrerak gaur bertan jarriko dira eskuragarri Manuel Lekuona kultur etxean.

## IKASTAROA

### Euskal Jantzia egiten ikasi

Euskal Jaiak eta Eguberrietako egun bereziei begira, Ttakun KE-k urtero bezala Euskal Jantzi tradizionalen inguruko bi ikastaroa antolatu ditu, bata urrian eta bestea azaroan.

Saioak astearte eta ostegun guztietan, arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara izango dira Emakumeen zentroan eta lone Artola jostunaren gidalerroak jarraituko dituzte ikasleek.

Interesa dutenek Ttakun Kultur Elkartean edo 943 371 448 telefono zenbakian eman behar dute izena.

Ikastaroen balioa 22 eurotako da Ttakunen bazkideentzat; bazkide ez direnek, 25 euro ordaindu behar dituzte. Ordainketa izena emateko egunean bertan egingo da.

Espazioa dela eta, plaza mugatuak dira. Talde bakoitzean gehienez 15 pertsona izango dira.

## Jesus Zaballo FEMPeKo Gobernu batzordeko kide

FEMP-en XI Batzorra izan zen irailaren 19an, larunbatean Madrilan. Honetan Jesus Zaballo FEMP, Espainiako probintzia eta udal herrien federazioko Gobernu batzorde kide aukeratu zuten.

Espainiako probintzia eta udal herrien federazioko Gobernu batzorde kideak berritu behar ziren batzar honetan.

FEMPeKo Gobernu Batzordea lehendakari batek, bi lehendakari ordekek eta 22 kidek osatzen dute. Alderdi ezberdinek haien hautagaitzak aurkeztu zituzten. PSOE alderdiaren proposamenean Jesus Zaballo Lasarte-Oriako alkatea zihuan.

Hautagaitza hau onartu zenez, Zaballo FEMPeKo Gobernu batzordeko kide da.

Lasarte-Oriako sozialistek prentsa oharrean helarazi dutenez, alkatearentzat aitorpen handia da eta onarpen honi esker, Lasarte-Oria lehenengo batzorde horretan dago.

Kargu berritzeaz gain, hiru lan batzorde eratu ziren eta ekonomia eta toki-administratzaioari, gizarte-kohezioari eta jasangarritasun eta lurraldeari buruzko proposamenak onartu ziren. Era berean, herrien autonomiarako hain kaltegarri den Toki-Administrazioaren Razionalizazio eta Jasangarritasun Legea indargabetzea eskatu zuten.





Estelada ikurriñarekin batera jarri du EAJ-k bere egoitzan baiezkoiari babesa agertuz.



### Eli Otaño

Hiru urte daramatza Elik Bartzelonan. Sarriá auzoan bizi da bera eta bertan independentismoaren aldeko iritzia nagusi dela dio "auzotik auzora alde handiak daude. Jendearen ahotan ez dago besterik".

Giroa nahasia dela dio lasarteoriatarak "hedabideetan ez dago besterik. Lehenengo albistea Kataluniari buruzkoa izaten da albistegiaren baita azkena ere. Momentu honetan marrazki bizidunak ikusteko gogoia ematen du, ia jasangaitza da eguneroko albiste jario hau. Gainera beldurraren kanpainan oinarritzen ari dira".

Jende askorengan eragina

izaten ari dela iruditzen zaio Eliri. "Jendeak sinistu egiten du telebistak esaten duena, ia dena da corralittoa, Kataluniatik joango diren enpresak, lehortea,... alderdien diskurtsoetatik at, edozerk balio du kanpainan eragiteko".

Igandeari begira "irrikitan nago eguna pasatzeko. Independentziaren aldekoek irabaztea nahi nuke. Dirudienez, azken inkestek diote hauek irabaziko dutela nahiz eta ozta-ozta izan. Ikusi beharko da azkenean zer gertatzen den. Ni itxaropentsu nago".

Berarentzat berria izan da Katalunian independentziaren alde dagoen sentimendua hain zabaldua dagoela ikustea. "Pentsatzen nuen euskaldunon borroka zela independentziarena baina

# Kataluniako hauteskunderi begirada

## Gurean bizi diren katalan eta han dauden herritarren ikuspegia

hemen oso barneratuta dago nazio izatearen sentimendua. Helburua lortzeko kalera atera dira modu masiboan, gogo handia dute eta hala erakutsi dute".

Gaia Euskal Herrira ekarrita, Gure Esku Dago egitasmoaren helburua bera izan arren, alde handia dagoela dio. Bi gizartei erreparatuta diferentziak daudelako.

"Esango nuke euskaldunon kasuan urrun gaudela oraindik Kataluniako prozesutik. Jendea mobilizatu eta etxetik ateratzeko gaitasuna erakutsi da. Gurean oraindik ez da lortu halakorik. Ibarretxe saiatu zenean jan egin zuten, gizartearen babes sendo bat ere ez zuen izan lehenengo urrats haietan. Hemen ordea, gizarteak prozesua bultzatu du".

**Kataluniako hauteskunderi zeresan handia sortu dute azken hilabeteetan. Independentziaren aldeko 'Junts pel si' plataformaren eraketa eta aurkezpenak gainontzeko alderdiak harrotu ditu. Batzuek hauteskunde normalak direla azpimarratu nahi izan dute kanpaina osoan zehar, besteek berriz, hauteskunde plebisitariok direla. Giro honetan herrian bizi diren bi katalanekin zein han dauden hiru herritarrekin hitz egin dugu.**



### Isaac Farré

Herrian hiru urte daramatza, nahiz eta urte gehiago izan hemendik daramatzanak, Euskal Herritik. Asko gustatzen zaio politika "ikusle bezala bizitzeko" hori dela eta kanpaina jarraitzen ari da. Bere ustez igandeko hauteskundeak erabakiorrak dira bai Espainiarentzat baita Kataluniarentzat ere. "Hala ere, aitortu behar dut gehien axola zaidana astelehenean aurrera gertatzen dena dela. Nola kudeatuko dituzten emaitzak alderdi zein bi gobernuak". Bere ustez baiezkoren aldekoak askoz gehiago mobilizatu dira eta indarra egiten ari dira. Independentismoaren aldeko alderdiak PPK berak sustatu zuela defendatzen du Farrék. "PPK Kataluniako estatutaren erreformaren aurka helegitea konstituzionalean jarri zue-nean orduan hasi zen pizten

mugimendu guzti hau. Orduarte isilean zegoena. PPK min asko egin dio sentimendu katalanari eta horri erantzuna da oraingoa. Alderdi ekonomikoak ere badu zerikusia baina aipatutakoak pisu gehiago izan duela iruditzen zait".

Espainiako gobernuak ez du ulertu zer zegoen Katalunian, independentziaren alderdiak babesik ez zuela uste zuen eta ez dio atentziorik jarri. Orain beranduegi da eta 'arazoa' handia. Kanpainan zarata gehiegi sortu dela dio Isaac-ek. Beldurraren kanpainak bozka erabaki gabe duten horiengan eragina izango duela argi dauka baina baiezkoren indarra duela uste du.

"Kataluniaren estatusa European aitortzea nahi nuke. Jarraitu behar badute duela 40 urteko estatu modelo bat inposatzen, argi daukat Katalunian independente bat nahi dudala. Hala ere, informazio asko falta zaigula iruditzen zait".

### Saioa Manich

Saioa Manich Gartzandiak lotura estua du Lasarte-Oriarekin, ama herrikoa izanda boldera luzeak pasatzen ditu gurean. Sant Celoni herrian bizi da.

Honen ustetan kanpainan alderdi ezberdinetako kideek erabilitako argudioek "beldurra eragin dute jende askoren artean, corralittoa mina egin duela iruditzen zait".

Igandean ezezkoren irabaziko duela iruditzen zaio, "Diada egunean argi esango nuke baiezkoren sendoa gailenduko zela baina kanpainan entzundako hainbat diskurtsok jendearen beldurra eragin dute. Ekonomia alorrean

hedabide zein alderdiek gogor dabilta esanez Kataluniaren gainbehera litzatekeela eta azkenean, lortu da jendea baiezkotik aldentzea".

Diada egunean eta aurretik ere nazionalismoaren sentimendua bere puntu gorenean zegoela dio Manich-ek. Egun horietan giroan, jendearen elkarrizketetan, independentziaren alderdiak inoiz baino ozenagoa zen "kanpainan indarra galtzen joan da".

Saioak argi dauka nazionalismoaren indar hau jendearen neketik datorrela "Katalunian azken urteetan, agian krisi ekonomikoak eraginda, nazionalismoa indartu da eta alderdiek jakin dute hori erabiltzen. Jen-

dea erreta zegoen Madrilgo gobernuarekin, oinarrian ekonomia dago, erkidegoen arteko diru banaketa eta eskumenean. Jendeak Independentziaren aukera ikusi du Madrilde aldentzeko eta erabaki gunea Katalunian jartzeko".

Katalunian lehenengo aldia da independentziaren aldeko sentimendua hain indartsu nabaritzen duela "Euskal Herrian bai, nazionalismoak gizartearen pisu handia du eta jendearen sentimendua ere oso fuere nabaritu dut beti. Hemen aldiz, Diada egunean besterik ez nintzen jabetzen hortaz, beste modu batera bizitu da eta oraingoa berria da niretzat ere".



### Eneko Arteaga

Eneko 16 urte daramatza Katalunian, horietatik 12 Gironan. Hauteskunde hauek bereziak direla dio "ez independentziaren erronkarengatik bakarrik, nahiz eta denbora osoan horretan zentratuta egon. Baita ere, alderdi politiko eta politikari berriak daudelako. Hauen proiektuak, hauen estrategiak, arazoei aurre egiteko era, beraien arteko akordioak... interesgarriak iruditzen zaizkit. Ustekabe bat baino gehiago egongo da 27a eta gero".

Eguneroko elkar bizitzan, herritarren arteko giroan ez dagoela aldaketarik dio. "Jen-


dearen arteko harremana berdinarra izaten du. Eguneroko bizitzan nahiko arazo badaude beste bat gehitzeko. Politikari batzuen estrategia da elkarbizitza aztoratzea boto batzuk urratzeko. Gaur egun politikan denak balio du".

"Nire ustez, Madrilgo politikak ez du Katalunian bakarrik urrunduta, baita beste erkidegoak ere. Begi guztiak Katalunian daude ipinita, baina ezerosotasuna Espainia guztian zabaldua dago, Valentzia, Balear irletan... Denek arazoak dituzte Madrilgo politika zentralistarekin".

Emaitzei dagokionez, "ez dakit baiezkoren irabaztea lortuko duen. Gehiengora iristekotan, oso gutxiengatik izango da. Alderdi politiko

gehiago daude independentistak ez direnak. Alderdi hauek, gizarteak dituen eguneroko arazoetan buru belarri lan egiten ari dira. Honek ere bozkatzeko momentuan bere pisua du".

Euskal Herriaren egoerarekin alderatuz, "ezin da herrien arteko konparaziorik egin. Bi herrien egoera politikoa eta gizarte ezberdinak dira. Ezin da Katalunian gertatzen dena beste herrialde batera eraman. Egitasmo berdinek ikuspuntu ezberdinak dituzte eta ikuspuntu ezberdinekin, lan egiteko era ezberdina eskatzen dute. Proiektu hau dagoen bezala Euskal Herrira eramatea, niretzako akats handia izango litzateke. Ondorioak ez lirateke onak izango".



### Anna Martori

Anna Martori herrian bizi da duela ia zazpi urte. Katalan honek hauteskunde kanpainako azken egunak ikusminez bizi dituela aitortzen du. "Izugarrizko gogoia daukat ikusteko igandean zer gertatzen den. Emaitzak ikusteko irrikaz nago".

Zehazki 'Junts pel Si' taldea osaketa gertatzeko zer jazo den azaltzeko ez da gai baina espero du alderdi eta eragileen arteko elkarketa honek "asmo politikoetatik haratago, herriaren identitatea osatzen duen kultura, sentimendu eta tradizioa defendatu eta babesteko helburua izatea".

Bertako lagun eta senideen artean emozioa nabaritzen duela dio. "Jendeak ez daki oraindik zer gertatuko den igandean ezta ondoren ere,

baina esango nuke jendea gogotsu dagoela sinisten duten Katalunian horren alde egiteko".

"Nik harremana dudana jendeak independentziaren aldeko bozka emango du. Hala ere, gehiengoak zeren alde egingo duen ez nuke jakingo esaten".

Hedabideetan ari da jarraitzen kanpaina eta Martori-ren ustetan inkestek esan bezala, gehiengorik gabeko baiezkoren bat izango da igandeko emaitza "hainbesteko zalaparta egon ez balitz agian baiezkoren aldeko erantzun handia egongo litzateke. Baina gauzak horrela, juxtu-juxtu izango da baiezkoren aldeko emaitza nire ustez".

Euskal Herriko eta Kataluniako errealitateak ezagututa, herritarri iruditzen zaio "han jendea oso erreta dago, gogotsu eta itxaropentsu dago prozesuarekin". Hemen ordea ez du halako jarrera nabaritzen.



# Ane Labaka bigarren Beasaingo saioan

Hasi dira Gipuzkoako Bertsolari txapelketako final zortzirenak; igandean herrian izango dira

Hasi da abenduaren 20an Ilunben izango den final handian egoteko lehia. Hiru hilabete, 43 bertsolari eta 15 saio. Aurreko igandekoa izan zen lehena, Beasaingo Usurbe antzokian; Ane Labaka herriko bertsolaria bigarren izan zen, 444 puntu eskuratuta. Jon Maiak irabazi zuen. Hurrengo biak, bihar eta etzi; Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean izango da igandekoa, 17:30ean.

## TXINTXARRI

Hasi dira Gipuzkoako Bertsolari txapelketako kanporaketak. Final zortzirenetan murgilduta dabilta 36 bertsolari.

Lehenengo saioa Beasaingo Usurbe antzokikoa izan zen, pasa den igandean. Jon Maiak irabazi zuen 456,5 puntu eginda eta jarraian sailkatu zen Ane Labaka herritarra, 444 puntu eskuratuta.

Lan txukuna egin zuen baita ere Earra! bertso eskolako kide Beñat Iguaranek eta saioa 420 punturekin amaitu zuen.

Maia zuzenean sailkatu zen final laurdenetarako; Labakak eta Iguaranek fase osoko puntuazioen zain egon beharko dute orain.

### Igandean Lasarte-Orian

Bertsozaleek Lasarte-Orian dute zita igandean. 17:30ean hasiko da saio hori, Manuel Lekuona kultur etxean.

Aitor Irastorza, Beñat Lizaso, Gorka Azkarate, Mainer Arregi, Xabier Sukia eta Mikel Artola ariko dira nor baino nor igandean. Iñaxio Usarralde egingo ditu aurkezlanak.

[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian erosi ahalko dituzte sarrerak zaleek; bi aretoetako leihatilak irekiko dituzte 16:00etan, saioen egunean bertan.

Azpeitiko Soreasu antzokikoa izango da asteburuko beste saioa, bihar bertan.

### Unai Muñoa Elgoibarren

Herriak beste ordezkari bat izango du urriaren 3an Elgoibarko Herri antzokiko saioan. Unai Muñoa ariko da bertan, hurrengo faserako sailkatzeko ahaleginetan.


Azkenik, Earra! bertso eskolako kide Asier Azpiroz Andoaingo Bastero kulturgunean ariko da urriaren 11n.

Final zortzirenetako saio bakoitzeko irabazlea zuzenean sailkatuko da hurrengo faserako.



nean sailkatuko da hurrengo faserako. Gainontzeko bertsolariek fase honetako puntuazioen zain egon beharko dute sailkatzen diren ala ez ikusteko. Final laurdenetan egoteko aukerak badituzte Labakak eta Iguaranek; saioak amaitu arte itxaron beharko dute.

Urriaren 24an eta 25ean izango dira hurrengo faseko lehenengo bi saioak, Urretxu-Zumarragan eta Erreterian hurrenez hurren. Final laurdenak eta finalurrekoak ere 17:30ean hasiko dira denak. Finalaren ordua soilik aldatuko da; 17:00etan hasiko da Donostian, abenduaren 20an.



Goian, Ane Labaka Beasainen abesten. Azpian, Lasarte-Oriako saioa kartela.

## Kukuka antzerki eta dantza eskola lanerako prest

Astelehenean hasiko du 2015-2016 ikasturtea Kukuka antzerki eta dantza eskolak. Kontxu lartza antzerki arduraduna, Mainer Oartzabal dantza arduraduna eta Uxue Loinaz irakaslearekin izan gara ikasturte honetako nondik norakoak azaltzeko.

Urtero legez, adin ezberdinetarako eskaintza zabala du eskolak, bai dantza baita antzerki alorrean ere.

HH5 eta LH3 maila arteko haurrek euskal dantzak ikasten dituzte eta LH4tik aurrera berriz, euskal dantza-sorkuntza saioak dira. Gainera, DBH1etik aurrera dantza garaikidea ere eskaintzen da.

Antzerkiari dagokionez, LH1etik helduetaraino daude mailakatuak taldeak.

### Helduen taldeak

Kontxuk adierazi digunez, gero eta talde gehiago ditu eskolak.

Horregatik, talde berriak osatzen doaz eta helduen antzerki taldean eta dantza

garaikideei taldeetako batean jendea behar dela jakitera eman du.

Honetaz gain, antzerkia arloan gazteen taldeak indartu direla eta beste talde bat osatzen ari dela ere aipatu du lartzak.

Eta talde batzuetan, mailak nahastuko dituztela aurreratu du. "Esperientzia berriak dira".

### Dantza eta antzerki eguna

Hau guztiaz gain, azken urteetako ohiturari jarraikiz, Kukuka eskolak antzerki eta dantza eguna ospatuko duela jakitera eman digute.

"Martxoak 27 eta apirialak 29 oso esanguratsuak dira guretzat. Kalera aterako gara egunak ezagutarazteko eta jendearekin elkarbanatzeko. Zerbait berritzailea egingo dugu, baina oraindik zehazteko dugu", jakitera eman du Oartzabalek.

Honetaz gain, dantza topaketak ere egingo dituztela aipatu dute.

### Transmisioa

Bestalde, Kukuka zaletasuna sustatzeko elkarteak dela eta etengabe berritzen doala aipatu digu Mainer Oartzabalek. "Erne eta esna gaude zer funtzionatzen duen jakiteko. Gainera, irakasle berriek ere haize freskoa dakarte. Proposamen berriak egiten dituzte".

Uxue Loinaz irakasleak aipatu duenez, "irakasle artean, harremana sendoa da eta elkarriz laguntzen diogu. Familia txiki modukoa da. Eta horrek herrigintza egiten laguntzen du. Orain eskola handitu da, baina hasierako izaera mantentzen da".

"Ikasleak irakasle dira egun eta oso positiboa da emozionalki transmisio bat egitea lortu dugula. Hurrengo belaraldian transmisioa egitea ere bermatu da. Altxorra hor dago. Eskolaren filosofia, jendearen ongizatea lantzea da eta," azpimarratu du Mainerrek.

### Lokal beharra

Honela izena emateko edo



Izema emate kanpaina egin du aurtur Kukukak honako kartelarekin.

informazioa eskuratzeko 655 847 345 telefonora deitu edo [kukukaeskola@hotmail.com](mailto:kukukaeskola@hotmail.com) helbidera mezu bat bidali behar da. Eta honen harira, Kukukako lagunek lokal baten beharra dutela azpimarratu dute.

"Herritarrek gurekin zuzenean harremanetan jartzeko eskatzen digute eta ez dugu leku fisikorik horretarako. Jen-

deak leku erreferente bat izatea ongi legoke" aipatu du Kontxuk.

"Asko erraztuko liguken lana bulegotxo batek, ze lana etxera eramaten dugu askotan", adierazi du Oartzabalek.

Baina hau lortu ezean lanean jarraituko du eskolak eta aurtur ikuskizunetan ezustekoak egongo direla aurreratu dute.



## LABURRAK.-

## Axier Arteaga herritarrak eta Jon Erasunek Polque txapelketako finala jokatu dute bihar Labriten

Zeresan handia ari da ematen Axier Arteagak eta Jon Erasunek osatzen duten bikotea denboraldi honetan. Abuztu amaieran Antiguoko txapelketa entzutsua irabazi zuten, eta beste zenbait txapelketetan ari dira parte hartzen.

Orain Polque izenekoan daude murgilduta; bihar jokatu dute final handia Etxebarria II.a eta Mariezkurrenaren aurka. 19:00etan hasiko da norgehiagoka Iruñeko Labrit frontoian. Pasa den asteartean 22-16 hartu zituzten mendean Elordi eta Etxebarria, finalurrekoetan.



## Garaipen batekin ekin dio denboraldiari Babyauto Zarautz errugbi taldeak

Modu ezin hobean hasi du 2015-2016 denboraldia Babyauto Zarautz taldeak. Ohorezko mailan ari da lehiatzen; denboraldi paregabea burutu zuten iaz eta igotzeko borrokan aritu ziren amaierara arte, nahiz eta azkenean ez zuten lortu.

Pasa den urtean bezain fin aritzeko helburuarekin hasi dira aurten ere. Bera Beraren kontra jokatu zuten Zarautzko Asti zelaian; amaierako markagailua 32-5ekoa izan zen.

Lehenengo zatian lortu zuen etxeko taldeak gerora erabakigarria izango zen abantaila, 25-0. Bigarren zatian defentsa gogortu zuen Bera Berak eta Babyauto Zarautzek abantaila eustera jokatu zuenez, ez ziren entsegu asko ikusi Astin. Bukaeran, 32-5 Babyautorentzat.

Xabi eta Ander Rekondo herritarrak aritu ziren norgehiagoka horretan; 80 minutuak jokatu zituen Xabik eta 63. minutuan atera zen zelaia Ander anaia.

## Ohorezko Erregionalak denboraldiko lehen 3 puntuak zakuratu zituen larunbatean

Hondarribiko arantzatxoa atera zuen Ostadarrek pasa den asteburuan. Errenteriako Touring KEren aurka neurtu zituen indarrak eta 1-0 irabazi zuen, bigarren zatian Gorka Marcosek sartutako gol bati esker. Azkoitian jokatu dute bihar, Anaitasunaren aurka. Bestalde, Ohorezko Jubenilek bina berdindu zuten Lesakan, Beti Gazte KJKeren kontra. Ohorezko Kadeteek berriz hasiera gogorra izan zuten: 1-4 galdu zuten Vasconiaren aurka Michelinen. Azkenik, 1go Erregionaleko taldea esku hutsik bueltatu zen Beriotik; 3-1 galdu zuen Muniberen kontra.

## ATLETISMOA.-

## Denboraldi polita aurretik

Iraila hasieratik daramate entrenatzen LOKEko atletak

**Ilusioz beteta ekin diote entrenatzeari LOKEko atletak. Azarora arte ez dira lehiatuko, baina iraila hasieratik daramate jo eta su entrenatzen. LOKEko prestatzaile Amaia Andresekin hitz egin du TXINTXARRIK, klubaren inguruko non-dik-norakoak ezagutzeko.**



Irudian, LOKEko atletak eta Amaia Andres prestatzailea (ezkerrean, behean).

## TXINTXARRI

**B**atek baino gehiagok hori pentsa dezakeen arren, Michelingo kirol guneko pista gorri bakarra ez da futbol zelaia inguratzen duena, metro gutxi batzuetara beste bat baitago, frontoiaren eta harmailen artean. LOKEren atletismo alorraren 'sukaldea' da. Errezetak, honakoak: ilusioa, grina eta egunero hobetzeko gogo.

Atletismo pista hurbiltzen denak federatuak ikusiko ditu jo eta ke entrenatzen, Amaia Andres eta Oscar Goikoetxea prestatzaileen begiradapean. Lan-saioei iraila hasieran ekin zieten, azaroan hasiko diren kompetizioei begira.

Emakumezkoak dira atleta horien gehiengoa, eta atzetik datozen gaztetxoaren artean ere bai. "Klub osoaren %90 inguru" dira emakumeak, Amaia Andresek zehaztu moduan.

lazkoa oso denboraldi ona izan zen LOKEko atletentzat; erakutsitako maila mantentzea da helburua aurten, Amaia Andresen esanetan: "Norbanako ikuspuntutik, gutxieneko markak egitea eta Espainiako txapelketetara sailkatzea dira xedek". Indibidualki lan oso egin zuten iaz. Kolektiboki ere bai: LOKEko neskak bigarren izan ziren Gipuzkoako klub sailkapenean.

## Aurtengo berrikuntzak

Modan jarri da korrika egitea herritarren artean. Gero eta gehiago animatzen dira lasterketa herriko zein maratoni erdien gisako probetan parte hartzera. Hori kontuan hartuta, LOKEk lasterketa horiek prestatzeko aukera eskainiko die aurten hala nahi dutenei.

Proba horien alor guztien inguruan emango dute aholku LOKEko kideek: zein estira-

mendu egin eta nola, txip-ak eta antzekoak nola jarri, etab. Aholku eman eta prestatzaile diseinatzerakoan "kontutan" hartuko dute korrikalariaren esperientzia, Amaia Andresek jakinarazi duenez.

Interesa dutenek 667 048 756 telefonora deitu edo astelehenetik ostegunera atletismo pista joan daitezke, 17:30etik 19:00etara.

Bestalde, herriko ikaste-txeetako ikasleak (8 eta 9 urteko benjaminak) datorren ostiralean hasiko dira entrenatzen, 17:30ean. Eskaintza Sasoeta eta Landaberritik harago doala ohartarazi du Amaia Andresek: "Ikasle asko daude lasarteoriatarak direnak baina beste herri batzuetan ikasten dutenak; gure klubaren ateak irekita aurkituko dituzte haiek ere, izena eman eta gurekin entrenatzen hasteko".

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Larunbata 26

Michelin, 11:45ean

Ostadar SKT - Hondarribia FE  
Ohorezko Jubenila, bigarren jardunaldia.

Michelin, 13:30ean

Ostadar SKT - Amara Berri KE  
Kadeteen Lehenengo maila,  
bigarren jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Antigua Luberri KE  
Emakumezkoen lurralde maila,  
lehenengo jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Ostadar SKT - Asoleus CF  
Erregionalen Lehenengo maila,  
bigarren jardunaldia.

Astigarragako Zarkumendegi zelaia,  
10:00etan

Astigarragako - Ostadar SKT  
Ohorezko Kadete maila,  
bigarren jardunaldia.

Matigoxotegi, Donostia 15:30ean

Internacional CD - Ostadar SKT  
Jubenilen Lehenengo maila,  
bigarren jardunaldia.

Txerloia, Azkoitia 16:30ean

Anaitasuna CD - Ostadar SKT  
Erregionalen Ohorezko maila,  
hirugarren jardunaldia.

## IGERIKETA

Larunbata 26

Mutriku, 16:30ean

Herriko hainbat igerilarik Flysch Beltzaren II. itsas-zeharkaldian parte hartuko dute Mutriku eta Deba artean.

## ATLETISMOA

Larunbata 26

Ermua, 18:00etan

Herriko zenbait korrikalarik Jose Merino oroimenezkoan hartuko dute parte.

Igandea 27

Donostia, 10:00etan

Hainbat herritar ariko dira '5 milia buru osasunaren alde' izeneko lasterketan Donostiako kaleetan zehar.

## ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol Txapelketa, bigarren jardunaldia:

Ostirala 25

Kirol gunea, 19:45ean

Also - Viña del Mar

Kirol gunea, 20:45ean

Txindoki - Kattagorri Insausti

Larunbata 26

Kirol-gunea, 9:15ean

Txoko - El Punto

Kirol-gunea, 10:15ean

TSST - Indaux

Kirol-gunea, 11:15ean

Izkiñan - Ilargi

Kirol-gunea, 12:15ean

Urdaneta HK - Reformas Lagunak

## TRIATLOIA

Larunbata 26

Ondarroa, 15:30ean

Saiatuz taldeko hainbat triatleta ariko dira proba horretan. 1,5 kilometro egin beharko dituzte igerian, 35,5 bizikletaz eta 10,2 korrika.

## PILOTA

Ostirala 25

Bergarako frontoia, 19:30ean

Bergara - Intza KE

Klubaren arteko jubenilen Gipuzkoako txapelketa, bigarren jardunaldia.

Larunbata 26

Michelingo frontoia, 16:00etan

Intza KE - Oiarpe (Oartzun)

Klubaren arteko seniorren Gipuzkoako txapelketa, bigarren jardunaldia.

Labrit, Iruñea, 19:00etan

Axier Arteaga herriko pilotariak eta Jon Erasun zizurkildarrak osatutako

bikoteak sendo jarraitzen du. Polque txapelketako finala jokatu du Iruñeko Labrit frontoi ezagunean, Etxebarria II.a eta Iker Mariezkurrenaren aurka.

## SASKIBALOA

Larunbata 26

Kiroldegian, 16:00etan

Ostadar SKT - Ordizia  
Errendimenduko juniorrak,  
bigarren jardunaldia.

Igandea 27

Bidebieta, Donostia, 10:00etan

Easo 01 - Ostadar SKT  
Errendimenduko kadeteak,  
bigarren jardunaldia.

## ERRUGBIA

Larunbata 26

Unbe, Eibar 17:00etan

Eibar RT - Zarautz Beltzak  
Ohorezko B maila,  
bigarren jardunaldia.

## Agenda

Gaur, Manuel Lekuonan, 19:00etatik aurrera



### Pailazoen erreportajeak ikusgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Euskal Herrian zehar ibili dira 'Txo, Mik Mak Txikia' ikuskizunarekin. Antzerki edo aretoetan ikusi ahal izan ez dutenek, orain DVDa dute eskuragarri. Honen harira, herriko pailazoen ekintza berezi bat antolatu dute. Jalgu-ne eta Albaola egitasmoen inguruko erreportajeak ikusi ahal dira eta ondoren mahai ingurua egingo da. Honetan Jon Maia ariko da Albaolaz.

baitako kontzertua da hau, aurrez eguraldi txarragatik bertan behera utzitakoa. Doan.

SIGLO 20

Larunbata, 20:30ean

Big Time saioa reggae, ska eta soul doinuekin. Sarrera doan.

### Zaharren Omenaldia

BIYAK BAT EGOITZA

Osteguna 1

16:00etan, Hasiera bandera altxatu eta aurrekuarekin.

16:30ean, Toka, Igela, Bote eta bingo txapelketak egingo dira.

Ostirala 2

11:00etan, Ohiko ibilbide osasungarria delakoa egingo da eta ostean, luncha izango dute parte hartzaileek.

18:15ean, Kalejira

19:00etan, 'La verdadera historia de Romeo y Julieta' antzezlan Manuel Lekuonan. Doan.

Larunbata 3

9:30ean, Ibilaldi neurtua Okendo plazan hasita.

17:00etan, Dantzaldia egoitzan.

18:00etan, Dantza lehiaketa.

19:30ean, Sari banaketa.

Igandea 4

11:30ean, Meza San Pedron.

12:00etan, Kalejira.

12:30ean, Biyak Bat egoitzako koruaren emanaldia Manuel Lekuonan.

14:00etan, Bazkaria Michelingo frontoian.

16:00etan, Dantzaldia Ibai Berriarekin.

## Lasarte-Oria

### Azoka

HERRIKO DENDAK

Larunbata

Aterpea elkarteko dendek stock azoka egingo dute egun osoan zehar. Eskaintzez gain, hainbat ekintza antolatu dituzte herriko merkataritza aktibatzen helburuarekin. Beste edizioetan ez bezala, denda bakoitzak eskaintzak aterako ditu kalera eta ez dira gune bakar batean denak elkartuko.

### Erakusketa

MERCERO ARETOA

Irailaren 24tik 26ra

GUREAK erakundearen 40. urteurre-

na dela eta, 'Etorri eta bizi esperientzien lantegia. Jokoen bidez desgaitasuna ulertzen' erakusketa izango da ikusgai. Sarrera doan.


### Bertsolaritza

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:30ean

Gipuzkoako bertsolari txapelketako saioa. Final zortzirenetako sei saioetako bat izango da herrian jokatu dena. Honetan arituko dira, Maider Arregi, Mikel Artola, Aitor Irastorza, Xabier Sukia, Beñat Lizaso eta Gorka Azkarate bertsolariak. Aurkezle lanak egingo ditu Inaxio Usarralde. Sarreraren prezioari dagokionez, Bertsozale elkarteko bazkideentzat 6

eurokoa izango da, gazteentzat 4 euro eta gainerakoentzat 9 euro.



### Musika

OKENDO

Ostirala, 19:30ean

Mery May & the Muppets taldearen kontzertua. Kultur Kale zikloaren

## Herritarren txokoa

### Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria. Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, [biyakbat@gmail.com](mailto:biyakbat@gmail.com) helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

### Intza K.Eren mus txapelketa

Intza K.E-ren 42. mus txapelketan izena emateko aukera dago zabalik. Honakoa gaur irailak 25a itxi egingo da. Irailaren 28an hasiko da txapelketa eta izena ematearekin batera, 30 euro ordainduko ditu bikote bakoitzak eta horrela finalaren eguneko afaria ordainduko da. Baldintza bezala, bikote bakoitzean

Intzako bazkide batek egon beharko du.

### Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean irailaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

## Sarean

### #markatupuntuEUS kanpaina

Euskal komunitate linguistikoa Interneten ordezkatzeko duen .EUS domeinua indartzeko #markatupuntuEUS kanpaina abiatu da.

"Zer marka nahi duzu .EUS izate?" galdetzen du kanpainak. Erantzuna dutenak parte hartzea animatu nahi ditu PuntuEUS Fundazioak. Partaideek marka agertzen den edozein euskarriri argazkia atera eta Facebooken, Twitterren edo Instagramen argitaratu beharko du #markatupuntuEUS traola erabiliz.

[www.markatu.eus](http://www.markatu.eus) web gunea sortu da kanpainarako. Bertan argitaratuko dira kanpainaren parte hartzen duten argazki guztiak eta bozkatzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Bozkatuenei astero Samsung Galaxy tableta bat oparituko zaie. Horretaz gain, amaieran PuntuEUS Fundazioak bi lagunentzat nekazal-etxe batean asteburuko egonaldia zozketatuko du kanpainaren parte hartu duten guztien artean.

Kanpaina urriaren 15era arte luzatuko da. Informazio guztia [www.markatu.eus/eu/](http://www.markatu.eus/eu/) web gunean eskuragarri dago. Kanpainaren helburu nagusia da .EUS domeinua gizartearen errotzea sarean geroz eta presentzia handiagoa izan dezan. Dagoeneko 4.000 domeinutik gora daude erregistratuta eta kanpainarekin oraindik pausoa eman ez dutenak animatu nahi dira.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintzarri@txintzarri.info](mailto:txintzarri@txintzarri.info)



# GUREAK-en garapena eta lana ikusgai

## GUREAK-en tailer ibiltaria eta erakusketa Mercero aretoan izango dira bihar arte

Antonio Mercero aretoa GUREAKen ibilbideari buruzko tailerra eta erakusketa jaso du. Tailer honekin GUREAKek publiko orokorrari gerturatu nahi dio desgaitasuna eta, aldi berean, 40 urte hauetan kolektibo hau lanbideratzeko egin duen lana ezagutzera eman. Udaran zehar Gipuzkoako hainbat herritan izan da Tailer ibiltaria eta larunbata bitartean gurean izango da.

**G**UREAKek 40 urteurrena ospatzeko tailer ibiltaria jarri du martxan. Honen helburua desgaitasuna hurbildu eta jokoaren bitartez desgaitasun ezberdinek ezagutzera ematea da.

Atzo zabaldu zen Antonio Mercero aretoan eta larunbata bitartean izango da aukera hau ikusteko.

Honen ordutegia gaur 10:30etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30ra izango da eta larunbatean 10:00etatik 13:30ra.

### Esperientzia bizi

GUREAK-etik azaltzen dutenez, tailerraren xedea desgaitasuna duten pertsonen egunerokoa topatzen dituzten oztopoez ohartaraztea da.

Horretarako hiru jokoz baliatzen da tailerra, haurrei eta gazteei bereziki zuzendutako dinamikak, baina publiko orokorrarentzat interesgarriak.

Lasarte-Oriako GUREAK lantokietako pertsonen gidatuko dituzte tailerrak bisitari eta desgaitasuna duten pertsonen arteko harremana estutzeko asmoz. Bost talde dira atzo eta gaur artean enpresatik tailer eta erakusketara hurbilduko direnak.

“Prestatutako dinamiken bitartez bisitarien desgaitasun fisiko, sensorial edo intelektual edukitzea zer den sentitu ahal izango dute eta, aldi berean, balioan jarriko dute kolektibo hauentzat laguntza egokiak izatea zein garrantzitsua den”, euren autonomia-erentzat lagungarria den laguntza azpimarratzen dute.

Honetaz gain, enpresan egiten duten lana ere erakutsiko diete Mercero aretora hurbiltzen diren herritarrei.

### Erakusketa

Tailerrekin batera GUREAKen ibilbidea jasotzen duen erakusketa ikusi ahal da.

Honetan jasotzen da 70eko hamarkadan guraso talde batek tailer txiki bat martxan jarri zuenetik gaur egun bilakatu den enpresara arteko ibilbide luzea. Egun 5.000 lagunek egiten dute lan honetan.

Hainbat jarduera eta esparrutan lan egiten du GUREAKek; elektronika, kable prozesatua, logistika, lorezaintza, garbiketa edo marketing-a dira horietako batzuk.

Eta Lasarte-Oriako enpresaren garapeneko hainbat argazki ere erakusten dituzte.

### 150 lagun Lasarte-Orian

Izan ere, Lasarte-Orian badu presentzia enpresa honek.

Industriaren esparruan, Lasarte-Oriako lehenengo tailerra 1990. urtean zabaldu zen Zirkuito ibilbidea, 16. lbaiondon. Hasiera batean 80 pertsonekin. Tailer horren lehenengo bezeroak izan ziren Tesa, Goenaga, Indaux eta Kraft enpresak.

Egun, herrian batik bat, automobilgintza eta jasotze esparrutako kableatuak egiten dira. Bezero nagusiak Valeo Iluminación, Magneti, Marelli, ABL eta Thyssen Krupp direlarik.

Zerbitzuen alorrean berriz, GUREAK berdeak Michelin enpresaren lorategien mante-



Lasarte-Oriako GUREAK enpresako langileek eta haien familiek enpresaren garapenari buruz jakin zuten atzo goizean.

nua egiten du eta garbiketa esparruan, kiroldegiko eta kultur guneko garbiketaz arduratzen da. Bestalde, Michelin enpresaren garbiketa eta Lasarte-Oriako Matia Fundaziokoa ere egiten ditu.

### Ibilbide oparoa

GUREAK 1975. urtean sortu zen ATZEGiren eskutik, adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarte.

Azaltzen dutenez, “garai hartan, inork ezin zuen imajinatu GUREAK 5.000 pertsonen osatutako enpresan bihurtuko zenik, horietatik %83 desgaitasun batekin”.

“Lau hamarkada hauetan lan aukera egonkorak sortzeko lan egin da, bereziki adimen desgaitasuna duten pertsonentzat”. Halaber, gizarteari erakutsi nahi izan dio enpresak kolektibo hauek badutela lan jarduera ezberdinak garatzeko gaitasuna ere.

Pertsona bakoitzari egokitutako lanpostua aurkitzea izan da GUREAKen erronka handienetakoa eta honek eragin dio bere jarduerak dibertsifikatzea, eta lana egun dauden lau ataletan antolatzeko (Industrial, Zerbitzuak, Marketing eta Itinerary).

“Aurten GUREAKek bere



Lasarte-Oriako langileek haien lana erakutsi zuten. Beste lantokietako lanak ere ikusgai daude.

40 urteurrena ospatu nahi du; bide berriak irekitzen, berri-tzen, ekimenak sustatzen eman dituen urteak, egun bihurtu den enpresa eredura iritsi arte, eredu dinamiko, ekonomikoki jasangarri eta eraginkorra”.

40 urteurrenako jarduerak GUREAK Gosariekin jarri ziren martxan. Topaketa

hauetan jende ezberdina batuzen GUREAKen ereduari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko.

Ospakizun honen baitan, urtean zehar beste hainbat jarduera jarriko dira martxan, guztiak GUREAKen filosofia, izaera eta lana ezagutzera emateko helburuarekin aipatzen dutenez.

# EPA LASARTE HHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## HELDUEN HEZKUNTZA

Educación de Personas Adultas

2015-2016 ikasturtea

Beko kalea bidea 1, 3. ( Anbulategi gainean ) • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376443 / 943 366608

www.epalasarate.es

Matrikula  
epea  
irekita

Azken  
plazak!!!